

Bestelako Xedapenak

HERRIZAINGO SAILA

2053

AGINDUA, 2009ko martxoaren 4koa, Herrizaingo sailburuarena. Horren bitartez, merezimenduen lehiaketaren bidez Ertzaintzako lanpostuak betetzeko aplikatu beharreko merezimendu orokorren baremoa onesten duen Herrizaingo sailburuaren 2008ko urtarrilaren 7ko Aginduaren lehenengo aldaketa xedatzen da.

Herrizaingo sailburuaren 2008ko urtarrilaren 7ko Aginduaren bidez (EHAA, 19. zk., urtarrilaren 28koa), onetsi egin zen merezimenduen lehiaketaren bidez Ertzaintzako lanpostuak betetzeko aplikatu beharreko merezimendu orokorren baremoa.

Aipatutako aginduaren kontra, ERNE sindikatuak eskatuta, 445/2008 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri zen EAEko Auzitegi Nagusian. 2008ko azaroaren 26an, epaia eman zen, eta epai horrek zati baten onetsi zuen jarritako errekurtoa, eta deuseztat jo zuen 3.2. artikulua. Izan ere, artikulua horren arabera, ez dira eginiko lantzat zenbatzen gaitasun arruntaren edo lanekoa ez den istripuaren ondorioz sortutako aldi baterako ezintasunak, betiere urte natural bakoitzean hogeit egunetik gorakoak badira. Ondorioz, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 71., 72., 73. eta 103. artikuluen eta horrekin bat datozen gainerakoen arabera, bidezkoa da epaia betearaztea eta xedapen orokorraren manuak nola geratu behar duen idatzita zehaztea.

Bestalde, abenduaren 30eko 231/2008 Dekretuaren bidez, Euskal Herriko Polizia Kidegoetako Funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudiaren hirugarren aldarazpena xedatu da, abenduaren 22ko 388/1998 Dekretuaren bidez onetsitakoa, hauei dagokienez: merezimenduen lehiaketaren bidez lanpostuak betetzeko prestakuntza-maila berdina dagoenean sortzen den berdinketa apurtzeko arauak, emakumeari lehenetsia emanez, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean ezarritako baldintzetan; Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak aldatu zuen lege hori. Beraz, bidezkoa da dagokion egokitzapena egitea 2008ko urtarrilaren 7ko Aginduan, Lanpostuak Betetzeko Araudia osatzen duen araua delako.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 73. artikuluekin bat etorriz, prozeduren metatzea xedatu ahal izango da, horien artean lotura estua dagoenean, horiek hasteko era edozein izanda ere, eta Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

2053

ORDEN de 4 de marzo de 2009, del Consejero de Interior, por la que se dispone la primera modificación de la Orden de 7 de enero de 2008, del Consejero de Interior, por la que se aprueba el baremo de méritos generales aplicable en la provisión de puestos de trabajo de la Ertzaintza mediante concurso de méritos.

Por Orden de 7 de enero de 2008, del Consejero de Interior, (BOPV n.º 19, de 28 de enero) se aprobó el baremo de méritos generales aplicable en la provisión de puestos de trabajo de la Ertzaintza mediante concurso de méritos.

Contra la citada Orden, a instancias del sindicato ERNE se siguió recurso contencioso-administrativo n.º 445/2008 ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el que con fecha 26 de noviembre de 2008 recayó sentencia por la que, estimando parcialmente el recurso interpuesto, declara nulo el artículo 3.2 en cuanto excluye del cómputo del trabajo desarrollado los períodos que correspondan a incapacidades temporales derivadas de enfermedad común o accidente no laboral, siempre que superen un mínimo de veinte días en cada año natural. Por consiguiente, de conformidad con los artículos 71, 72, 73 y 103 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa y demás concordantes de aplicación, procede ejecutar la sentencia y determinar la forma en que ha de quedar redactado el precepto de la disposición general.

Por otro lado, por Decreto 231/2008, de 30 de diciembre, se ha dispuesto la tercera modificación del Reglamento de Provisión de Puestos de Trabajo de los funcionarios de los Cuerpos de Policía del País Vasco aprobado por Decreto 388/1998, de 22 de diciembre, en cuanto a las reglas de desempate establecidas para los supuestos de igualdad de capacitación en la provisión de puestos de trabajo por concurso de méritos, otorgando prioridad a la mujer, en los términos establecidos en la Ley de Función Pública Vasca, modificada por Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres. Procede por tanto, efectuar la correspondiente adaptación en la Orden de 7 de enero de 2008, dado que es norma que complementa al Reglamento de Provisión de Puestos de Trabajo.

De conformidad con el artículo 73 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, se podrá disponer la acumulación de procedimientos cuando exista íntima conexión entre ellos, cualquiera que sea la forma de su iniciación, y en

funtzionalari buruzko azaroaren 8ko 364/2005 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.— 1.— Epaia betearaziz, merezimenduen lehiaketaren bidez Ertzaintzako lanpostuak betetzeko aplikatu beharreko merezimendu orokorren baremoa onesten duen 2008ko urtarrilaren 7ko Aginduaren 3. artikuluko 2. zenbakia honela idatzita geratuko da:

«2.— Gauzatutako lana hautagaia kasuan kasuko kategorian izendatu zen eguna erreferentziatzat hartuta balioetsiko da, eranskineko 2. atalean xedatutakoaren arabera. Zerbitzu aktiboan edo bigarren jardueran gauzatutako lana balioetsiko da, eta, beraz, ez dira zenbatuko aipatutakoak ez diren administrazio-egoeretako aldiak.

Ez dira gauzatutako lantzat hartuko norberaren gauzetarako baimenaren aldiak, lanpostuak betetzeko aurreko prozesu orokorretik aurrera zenbatutakoak, zerbitzu aktiboko edo bigarren jarduerako administrazio-egoeretan.»

2.— EAEko Auzitegi Nagusiaren eskumena da epaiaren betearazpena izapidetzean ager daitezkeen gaiak jakitea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103.1. eta 109. artikuluek xedatutakoaren arabera.

Bigarrena.— Merezimenduen lehiaketaren bidez Ertzaintzako lanpostuak betetzeko aplikatu beharreko merezimendu orokorren baremoa onesten duen 2008ko urtarrilaren 7ko Aginduaren 5. artikulua aldatu eta honela idatzita geratuko da:

«Puntuazioan berdinketa gertatzen bada, emakumezkoari emango zaio lehentasuna, lanpostu horren kodean emakumezkoen ordezkaritza % 40 baino txikiagoa bada. Berdinketak jarraitu egiten badu, ebazteko, adierazitako merezimenduei emandako puntuaziora joko da, 2. artikuluan azaldutako ordenan. Horrelakorik ez badago, hautagaiek lehiaketara aurkezteko dabilten kategoriara karrerako funtzionario gisa noiz sartu ziren eta, halakorik ezean, kategoria horretara sartzeko aukeratze-prozesuan lortutako lehentasun-ordena hartuko da kontuan.»

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 4a.

Herrizaingo sailburua,
JAVIER BALZA AGUILERA.

ejercicio de las atribuciones que me confiere el Decreto 364/2005, de 8 de noviembre, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior,

DISPONGO:

Primero.— 1.— En ejecución de sentencia, el n.º 2 del artículo 3 de la Orden de 7 de enero de 2008, por la que se aprueba el baremo de méritos generales aplicable en la provisión de puestos de trabajo de la Ertzaintza mediante concurso de méritos, queda redactado en los siguientes términos:

«2.— El trabajo desarrollado será valorado tomando como referencia la fecha de nombramiento en la correspondiente categoría, conforme a lo determinado en el apartado 2 del anexo. Se valorará el trabajo desarrollado en la situación de servicio activo o segunda actividad, por lo que se excluirán del cómputo los períodos en situaciones administrativas distintas a las señaladas.

No se considerarán trabajo desarrollado los períodos de disfrute del permiso por asuntos propios a contar desde el anterior proceso general de provisión de puestos de trabajo, en las situaciones administrativas de servicio activo o segunda actividad.»

2.— Compete al Tribunal Superior de Justicia del País Vasco conocer de las cuestiones que puedan plantearse en trámite de ejecución de sentencia, conforme a lo que disponen los artículos 103.1 y 109 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Segundo.— Modificar el artículo 5 de la Orden de 7 de enero de 2008, por la que se aprueba el baremo de méritos generales aplicable en la provisión de puestos de trabajo de la Ertzaintza mediante concurso de méritos, queda redactado en los siguientes términos:

«En caso de empate en la puntuación, se dará prioridad a la mujer cuando la representación de las mujeres en el código de puesto de que se trate sea inferior al 40%. De persistir el empate, se acudirá para dirimirlo a la puntuación otorgada a los méritos enunciados por el orden en que aparecen expresados en el artículo 2. En su defecto, se acudirá a la fecha de ingreso como funcionario de carrera en la categoría desde la que se concursa y, en su defecto, al orden de prelación obtenido en el proceso selectivo de acceso a la citada categoría.»

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de marzo de 2009.

El Consejero de Interior,
JAVIER BALZA AGUILERA.